

TOPIC JADA EZ DA UTOPIA



Kultura » Atzo egin zuten Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaren inaugurazio ofiziala; gaur Titirijai jaialdiarekin hasiko dira.

E. EZEIZA - I. TERRADILLOS

Herenegun herritarrak izan ziren Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa estreinatzen lehenak. Atzo, berriz, agintarien bisita izan zuen Topic-ek. Eusko Jaurlaritzako Idoia Mendia eta Iñaki Arriola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Haritz Solupe eta Maria Luisa Garcia, Espainiako Gobernuako Industria saileko Joaquin Abati, Kutxako Xabier Iturbe eta Mikel Irizar, PPren Antonio Basagoiti, Marta Dominguez atleta, Unimako hainbat ordezkari eta Tolosako Juan Garmendia Larrañaga, May Gorostiaga, Antxon Elozegi edota Txetxo Gaztañaga izan ziren, besteak beste.

Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakariak eskerrak eman zizkien Topic errealtate izateko laguntza eman duten oro-

ri, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak txotxongiloen funtzioa nabarmendu zuen: «Irudimena, sormena eta parte-hartzea bultzatzen dute, batez ere gazteengan eta horregatik da oso garrantzitsua proiektu hau».

Mugimendua egoitzan

Atzo iluntzean inauguratu zuten, beraz, ofizialki egoitza ohiko zinta mozketarekin. Jendearen joan-etorria, ordea, goizean goizetik izan zuen Topic-ek, herritarren artean kultur gune berriak ikusmina piztu duen seinale. Museo iraunkorra, erakusketak, aretoa edota egoitzaren beste guneak gertutik ezagutzeaz gain, beste hainbat jardueraz gozatzeko aukera izan zuten, batez ere gaztetxoek, irekieraren bigarren egunean. Batek, goiz osoan zehar txotxongi-

loen tailerra izan zuten zazpi urte-tik gorako ehunka gaztek. Mari-na zentroaren irudia oinarri hartuta txotxongiloak egiten aritu ziren. Piezatxoak moztu, pintatu, gorpuzta osatu eta makiltxoak jartzen «oso gustura» pasa zuten goiza, eta gainera bakoitza bere txotxongilo-arekin itzuli zen etxera. Makillaje tailerrean ere gozatu egin zuten gazteek, txotxongiloen munduko pertsonaia desberdinez arpegia margotzeko aukera izan baitzuten. Gaur ere txotxongilo nahiz makillaje tailerrak izango dituzte.

Arratsaldean antzezlan ez bete zen Euskal Herria plaza, eta haurrek erraldoiek in batera kalejira ere egin zuten Plaza Zaharretik Euskal Herria plazaraino. Ikusizunek hartu zuten atzokoan, beraz, herria.

Gorostidikoak protestan

Inaugurazio ekitaldia baliatuz Gorostidi enpresako langileek elkarretaratzea egin zuten Euskal Herria plazan erakundeetako agintarien aurrean.



Txotxongiloen Zentroan Maliko erakusketa ikusten. E. EZEIZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95